

Esanaren zuzena: Sharon Olds poeta

AURKEZPENA: JON KORTAZAR*

POEMEN ITZULPENA: JUAN KRUZ IGERABIDE

Sharon Olds poeta estatubatuarra (San Frantzisko, 1942) irakurtzeko gomendioa Juan Gil Bengoa idazleak egin zidan. Bera ere poeta da, nahiz eta gero eta gehiago gozaten duen irakurketaz, eta ez hainbeste idazketaz. Berak egin zidan mesedea egin nahi nieke orrialde hau irakurtzeko pazientzia duten guztiei; berak eman zidan aholkua zabaldu nahi nuke: «Irakurri Sharon Olds poetaren lana». Bai, irakurri Sharon Olds; ez zarete damutuko! Poeta bikaina benetan! Gutxitan esaten dudan esaldia: poeta bikaina, bizitza aldatzen duten horietarikoa. Zuzena, bortitza.

Kritikari batek esana du «sua eskuetan dakarren poeta» dela. Sua, esan nahi baita, beroa, bizitza.

Sharon Olds San Frantziskon jaio zen, 1942an, baina Berkeley-n hazi zen, familia

oso erlijioso eta estu batean. Aitaren presentzia gogorra zen, eta, Olds-en lehen poemetan, hark sorturiko beldurra izan zen sorkuntzaren motorrik zuzen eta indartsuena.

Sari asko jaso ditu bere poema liburuengatik. Hona hemen argitaratutakoen zerrenda: *Satan Says* (1980), *The One Girl at the Boys' Party* (1983), *The Dead and the Living* (1984), *The Victims*, *The Gold Cell* (1987), *The Father* (1992), *The Well-spring* (1996), *Blood, Tin, Straw* (1999), *The Unswept Room* (2002), *Stag's Leap* (2012). Eta haietariko batzuk gazteleraz ere aurkitu ditzakegu: *Satán dice* (Igitur, 2001), *El padre* (Bartleby Editores, 2004), *Los muertos y los vivos* (Bartleby Editores, 2006), *La célula de oro* (Bartleby Editores, 2016), *El salto del ciervo* (Igitur, 2018) eta *Odas* (Valparaíso, 2019).

* Artikulu hau Eusko Jaurlaritzak eratzen duen Ikerketa Talde Finkoen Sarean kokaturik dagoen eta Euskal Herriko Unibertsitateak onartu duen LAIDA (Literatura eta Identitatea) Ikerketa Taldearen (IT 1397/19, PPGA 20/19) eginkizunen barnean egin da.

2013an, *Stag's Leap* [Oreinareen jauzia] (2012) poema liburuagatik poesia alorreko Pulitzer saria hartu zuen. Nire harridurarako, liburu hori ikusi dut aipaturik *El País* egunkariak egin duen XXI. mendeko 100 liburu garrantzitsuenen artean, bide batez Arambururen *Patria* salduenetik ez hain urruti. Gaztelerazko itzulpena Joan Margarit poeta handi eta adiskideak egin du, eta, liburuan, bat-bateko dibortzio baten ondoren sentitutakoa hartu du langai Sharon Olds-ek. Horren aurretik, San Frantziskoko Poesia Saria, Lamont Poetry Prize eta National Book Critics Circle Award sariak jaso zituen. Espainian, Leóngo Leteo saria jaso zuen, 2015ean. Eta Espainiara egin zuen bidaia horrek oihartzun gutxi lortu zuen Espainiako egunkarietan.

Bide luze horretan, Sharon Olds-ek bere bitzita pertsonala giro politikoarekin lotu du. Aitaren presentzia itogarria landu zuenean, *Satan Says* [Satanek dio] liburuan, gogor astindu zuen Reaganen presidentzia. Ezaguna da, hein berean, Bushen aurka idatzitako gutun irekia. Laura Bushek Liburuaren Jai Nazionalera gonbidatu zuen, eta Sharon Olds-ek zuzen erantzun zion Bushen erregimenaren aurrean «larridura eta lotsa» besterik ez zuela sentitzen. Eta argi du kontu hori:

La poesía de Sharon Olds tiene una dimensión decididamente política: «No puedo permanecer callada ante lo que veo que sucede en mi país. No puedo sancionar con mi poesía las atrocidades que lleva a cabo mi gobierno. Por eso cuando el marido de Laura Bush me invitó a la Casa Blanca rechacé la invitación». (Lago, 2015).

Kontua da apurka-apurka irakurle argi batzuen artean ezaguna egiten ari dela Sharon Olds. Eta norbaitek esan du haren lanak eragin nabarmena duela Espainiako emakume poeten artean. Azken liburua Elvira Sastre-ek itzuli du, eta Elena Medelen azken lana ez dago urrun Sharon Olds-ek planteatzen dituen bideetatik.

Euskal irakurleen artean haren lana zabaltzeko, nire adiskideak aipatu eta haren pistan jarri ninduen liburua hartu dugu Juan Kruz Igerabidek eta biok. *La célula de oro* (*Urrezko gelaxka* / *The Gold Cell*), Óscar Curiesesek itzulia, Bertleby Editores-ek eman du argitara. Aitortu behar nuke liburu hari esker lehen aldiz ezagutu nuela Sharon Olds-en lana eta txundituta geratu nintzela.

Sharon Olds-en lanaren sarrera egiteko ate ikusgarria iruditu zait. Haren lanez idatzi duten guztiek aipatu dute poetarentzat oso kritikagarria dela Mendebaldeko familia instituzioa, batez ere haurtzaroan jasan behar izan zuen bortizkeriaren kausaz, bizi izan zuen familia giroak gogor astindu baitzuen, eta gaia garratz eta gordin landu zuen bere lehen poema liburuan, *Satan Saysen* (*Satán dice* / *Satanek dio*).

Hiru dira Sharon Olds-ek erabili ohi dituen gaiak. Bere haurtzaroa eta familia, ez baitzuen sendi zorientsurik izan, aita bortitz eta alkoholiko baten eta ama anorexiko baten menpe; gizartearen aurreko protesta, giro soziala oso hurbila baita Olds-en poesian, eta sexualitatea, ez baitu hitzik isiltzen bere gorputzaren gozameneko bideetan. Ez zuen alferrik aipatu Eduardo Lago idazleak poetari buruzko bere artikuluan: «Para mí

no hay nada más natural que hablar de mi sexualidad». Eta poetak berak gehitu zuen:

«A muchos les molesta la manera en que abordo la sexualidad o ciertos aspectos de la intimidad familiar como qué significa ser madre o ser hija. O que escriba la dolorosísima crónica del abandono de una esposa por parte del marido. O las fases terribles de la muerte de un padre, víctima de cáncer». Pero es en esto en lo que radica la fuerza de su poesía. (Lago, 2015).

Ondoren, baina, eta esku artean dugun honetan nabarmenago, Sharon Olds-en esaera modua leundu egin da, eta mina orekatuago ageri da. *Urrezko gelaxka* lanean, minaren indarraren gainetik jarri du poetak bizitzeko gogo. Óscar Curieses itzultzaileak honela ikusi zuen molde aldaketa:

Se produce una metamorfosis reconciliadora *con* el dolor y *desde* el dolor en lo que atañe a los progenitores [...] la necesidad de asumir el dolor por parte de los seres humanos y el deseo de transformarlo en un impulso vital. (Curieses, 2017: 10).

Urrezko gelaxka familiaren eratzeari eta norberaren izaerari buruzko liburua da. Lau zatitan banatuta dago, eta emakumearen nortasuna adierazten du. Lehen atalean, itzulpena egiteko poemarik gehienak hemendik aukeratu ditugu; orokorra da. Sharon Olds-ek gizartean jarri du bere begirada. Eta bere begi zoliez ageri duen sentsibilitatea dela medio, gizartean gertatu ohi diren dramak agertu ditu: bere buruaz beste egitera doan gizonaren kasua; metroan beldur den emakumearen argazkia; kale gorrian utzi duten jaioberriaren irudia; sexu harreman bat, zeinaren arabera gorputzaren

errugabetasuna, ontasuna, osasuna goratzen baititu; Ugandako herri batean kokaturiko erailketa; bere bortxaketa hitzez emateko gai ez den haurra... Garratza da Olds bortzikeria salatu behar duenean. «Neskatoa» («The girl») poemak bortxaketa bat deskribatzen du, eta irakurlearen sentimen mundua hoztzikaraz betetzen. Denak dira drama baten aurpegi ilunak, baina minaren iluna poema honetan ageri da. Sandro Barrellak (2019) idatzi duenez, bata bestearen segida dira; loturik ematen ditu poemak Olds-ek, bai liburu honetan, bai besteetan.

Como en el pase del testigo, cada poema recibe, a su vez que entrega al siguiente, la cifra que no puede detenerse sino al final de la carrera, y en este andar un dibujo al interior del libro prevalece. Una trama que incluye la suma de antiguas heridas, el viaje lúcido desde el dolor hacia la serenidad, el reconocimiento de vivir. (Barrella, 2019).

Bigarren atalak gurasoak lehen aldiz elkar ikusi zutenekoa du gai nagusi. Elkar ezagutu zuten egunak ematen dio hasiera. Ahots poetikoak esan nahi die aurrera ez egiteko, ez elkar maitatzeko, seme-alabentzako sufri-mendu iturri izango baitira, baina ahotsak baimena eman die azken orduan. Haurtzaroari buruzko atala dugu hori. Lehen atal ilunaren ondoren, liburuak joera autobiografikoa hartzen du, eta hor dira gure irakurle begien aurrean haren gurasoak, etorkizun osoa aurrean dutela, poeta jaio aurretik, eta jakin gabe nolakoa izango den datorkien hori. Haurtzaro eta nerabezaro gogorra deskribatzeko ez du zalantzarik Sharon Olds-ek, nahiz eta pixkanaka leunduz doan beraren idazkera. Eta, berandu

bada ere, barkamenezko begirada bidaltzen die amari eta, batez ere, oso urrun ikusten duen aitari.

Hirugarren atalak bere sexualitatea du hizpide. Argia da poeta besteeikiko ulermenez hitz egin behar duenean. Bere bizitzaz hitz egitean, oso zuzen adierazten ditu barne-barnekoak diren gaiak: sexualitatearen agerpena, lehen maitalea, lehen harreman sexuala, lehen maitasuna... Poema horietan, ironiaz gain, edertasunaren izpiak jartzen ditu orri gainean.

Laugarren atalean, bere haurren bizitza hartzen du ardatz gisa. Liburuan, bada, bere biografia osoa hartzen du kontuan, gurasoengandik hasi eta bera ama bihurtu arteko bizitza.

Santos Domínguez idazleak honela deskribatu du liburuan egiten den ibilbidea:

La vida y la muerte, el sexo y la pérdida, lo bueno y lo malo de la vida, la belleza y la crueldad, su hijo y su hija, en los que se centra la cuarta parte, recorren estos poemas inquietantes y turbadores en los que conviven lo público y lo privado en el exorcismo de sus demonios familiares. (Domínguez, 2017).

Aitortu behar nuke Sharon Olds-en poesian deskribapenerako joera dela nagusi. Eta poesia anglosaxoian hain usu ageri den poesia mota hori ez dut oso gustukoa. Beti irudikatu dut poeten jarrera honela: «Hor dago objektu poetikoa eta hartaz arituko naiz». Hotza iruditu zait gaur arte. Sharon Olds-en poemak narratiboak edo deskriptiboak dira, eta irakurleak azpian dagoen tentsioa nabaritu beharko du, metroan doan eta bere gizarte klasetik urrun

dagoen mutilarekin topo egiten duenean. Maisua da baina, gorputzaren azken erreakzioen berri eman ohi duenean, azken punturainoko sentsazioak gure begien aurrean jartzen dituenan.

Berak aitortua duenez, erritmoarekin jolasten da maiz; ingelesez, noski.

Quiero que se recuerde que cambié la estructura y la rima de los himnos con los que me eduqué. Así mi poesía no tiene rima, ni una estructura rígida... al principio, cuando empecé a escribir con treinta años, no sabía lo que hacía: escribía pequeños himnos a mis hijos, al que era mi esposo, a la sexualidad en sí misma... Eran himnos antirreligiosos (contra la religión organizada), contra el infierno y contra el sexismo. Así fueron mis primeros poemas. Pero no carecían de forma, por mucho que me rebelara contra aquel ritmo y aquella rima. Eso sí, mi poesía tiene métrica: cuatro acentos por verso, que de vez en cuando altero. Es el ritmo anglosajón de cuatro golpes fuertes. Me encantaba bailar y salirme de vez en cuando del ritmo, así que en cuanto puedo me salgo de este mismo ritmo, para poder decir no. (Saravia, 2015).

Himno bihurtzen ditu poemak, bai. Eta maiz aipatu da haren poesiaren ezaugarri nagusia dela ez duela (kasik) inoiz metaforarik erabiltzen bere diskurtsoa sortzeko unean. Ez dakit guztiz egia den, irudituko luke han eta hemen erabili izan duela, baina horixe da kritikariek bere poesiaz nabarmendu duten ezaugarria:

Olds, a diferencia de otras autoras con más renombre en la poesía norteamericana (Sylvia Plath, Anne Crason, Anne Sexton, etc.) no ha basado su escritura en la utilización

de la metáfora, sino en la comparación [...] Para Olds la metáfora sustituye la realidad por otra cosa (una ficción), por eso no la emplea o, mejor dicho, no constituye el núcleo de su trabajo. (Curieses, 2017: 8).

Zer bilatzen du, bada? Esanaren zuzentasuna, esperientzia bizia zuzen ematea. Olds-ek horixe aitortu zion Eduardo Lagori:

Muchas veces me preguntan dónde se forman mis poemas y nunca sé qué decir, de la misma manera que no sé qué es la imaginación. No soy una poeta intelectual. ¿En los pulmones? ¿En el movimiento físico del brazo? Cuando escribo no tengo la menor idea de lo que estoy haciendo... Cuando los jóvenes poetas me piden consejo siempre les digo lo mismo, que lleven una vida sana, porque el lugar del que procede la poesía es un lugar sano. (Lago, 2015).

Metaforarik ez dago, beraz, eta, konparaketaz gain, Sharon Olds-ek irudi argiak

maite ditu, irudimenaren indarra, han eta hemen. Inoiz, deskribapen baten erdian, barnera begiratzen du poetak, han irudiz osaturiko beste errealitatea bilatzeko, betiere giza esperientzia aberastasunez emateko.

Santos Domínguezek ederki laburtu du nolakoa den Sharon Olds-en poesia:

Como en el resto de su obra, en estos textos se plantea el ejercicio de la escritura como una respuesta a la sociedad y como un desquite hacia el pasado familiar, como una reivindicación del cuerpo y de la sexualidad femenina desde la desobediencia y la memoria personal, como defensa en fin frente a la violencia, el abuso y la injusticia. (Domínguez, 2019).

Sharon Olds irakurtzean, antzeko zerbait sentitu dut. Metaforarik erabiltzen ez duen poeta honen munduaren zuzentasuna maite dut; horrek harrapatu nau. Esateko modu zuzena, beraren poesia erradikalaren oinarririk garbiena.

BIBLIOGRAFIA

- BARRELLA, Sandro (2019): «Sharon Olds, darle nombre al pasado». *Clarín*. Hemendik hartua: https://www.clarin.com/revista-enie/literatura/sharon-olds-darle-nombre-pasado_0_lxsLVohHl.html. Kontsulta: 2020ko apirila.
- BIAGINI, Elisa (2001): «Sharon Olds, Essere nel corpo». *Poesía*. Hemendik hartua: http://www.poesia.eu/Archivo/2001/somm_12_01.htm. Kontsulta: 2020ko apirila.
- CURIESES, Óscar (2017): «*La célula de oro* o la reconciliación», in OLDS, Sharon: *La célula de oro*. Madril: Bartleby Editores, 7.-11. or.
- DOMÍNGUEZ, Santos: (2017): «Sharon Olds. La célula de oro». *Encuentros de lecturas*. Hemendik hartua: <https://encuentrosconlasletras.blogspot.com/2017/07/sharon-olds-la-celula-de-oro.html>. Kontsulta: 2020ko apirila.
- (2019): «Sharon Olds. Odas». *En un bosque extranjero*. Hemendik hartua: <https://santosdominguez.blogspot.com/2019/09/sharon-olds-odas.html>. Kontsulta: 2020ko apirila.
- LAGO, Eduardo (2015): «Para mí no hay nada más natural que hablar de la sexualidad». *El País*. Hemendik hartua: https://elpais.com/cultura/2015/12/18/actualidad/1450459050_618854.html. Kontsulta: 2020ko apirila.
- SARAVIA, Rafael (2015): «Sharon Olds: “Ante el miedo lo único que puedo hacer es escribir”». *El Cultural*. Hemendik hartua: <https://elcultural.com/Sharon-Olds-Ante-el-miedo-lo-unico-que-puedo-hacer-es-escribir>. Kontsulta: 2020ko apirila.
- VÉLEZ OTERO, Juan José (2019): «Un canto a la sustantividad», in OLDS, Sharon: *Odas*. Granada: Valparaíso, 11.-13. or



Summer Solstice, New York City

By the end of the longest day of the year he could not stand it,
he went up the iron stairs through the roof of the building
and over the soft, tarry surface
to the edge, put one leg over the complex green tin cornice
and said if they came a step closer that was it.
Then the huge machinery of the earth began to work for his life,
the cops came in their suits blue-grey as the sky on a cloudy evening,
and one put on a bullet-proof vest, a
black shell around his own life,
life of his children's father, in case
the man was armed, and one, slung with a
rope like the sign of his bounden duty,
came up out of a hole in the top of the neighboring building
like the gold hole they say is in the top of the head,
and began to lurk toward the man who wanted to die.
The tallest cop approached him directly,
softly, slowly, talking to him, talking, talking,
while the man's leg hung over the lip of the next world
and the crowd gathered in the street, silent, and the
hairy net with its implacable grid was
unfolded near the curb and spread out and
stretched as the sheet is prepared to receive a birth.
Then they all came a little closer
where he squared next to his death, his shirt
glowing its milky glow like something
growing in a dish at night in the dark in a lab and then
everything stopped
as his body jerked and he
stepped down from the parapet and went toward them

Udako solstizioa, New York City

Urteko egunik luzeenaren amaiera aldera, ezin izan zuen gehiago,
burdinazko eskaileretan gora jo zuen eraikinaren gainalderaino,
eta, ertzaren mundrun bigunetik harago,
hanka bat jarri zuen eztainu berdezko erlaitzean
eta esan zuen pauso bat gehiago gerturatzen baziren, akabo.
Orduan, han beheko makineria handia lanean hasi zen haren biziaren alde,
poliziak heldu ziren, urdin-grisez jantzirik, ilunabarreko zeru lainotuaren kolorez alegia,
eta haietako batek balen aurkako txalekoa jarri zuen,
babesgarri beltz bat bere biziaren babes,
umeen aitaren biziaren babes alegia
—gizona armaturik balego ere—, eta beste bat,
soka batetik zintzilik bere eginbeharra betez,
auzoko eraikinaren goreneko zulo batetik agertu zen,
buruaren gainean omen dagoen urrezko zulo horretatik bezala,
eta bere burua hiltzeko asmoa zuen gizonaren zelatan jarri zen.
Polizia garaienak gizonagana jo zuen zuzenean,
emeki, hitz eginez, hitz eginez, hitz eginez,
gizonaren hanka beste munduaren ertzean zintzilik zegoen bitartean,
eta kalean jendetza bildu zen, isilik, eta sare bilotsua
bere lauki gupidagabeekin
hedatu eta luzatu zuten espaloien ondoan,
jaiotzera doana jasotzeko prestatzen diren maindireak bezala.
Orduan, guztiak gerturatu ziren pixka bat
gizon hura bere heriotzaren aurrean finkatuta zegoen ondora; haren alkandorari
esne-distira zerion, laboratorioan gauez platera batean ilunpetan
hazten ari den zerbait bezala, eta orduan
dena geldi-geldi geratu zen
haren gorputza inarrosi egin baitzen,
erlaitzetik jaitsi eta haiengana abiatzeko,

and they closed on him, I thought they where going to
beat him up, as a mother whose child has been
lost will scream at the child when it's found, they
took him by the arms and held him up and
leaned him against the wall of the chimney and the
tall cop lit a cigarette
in his own mouth, and gave it to him, and
then they all lit cigarettes, and the
red, glowing ends burned like the
tiny campfires we lit at night
back at the beginning of the world.

eta haiek inguratu egin zuten, jo egin behar zutela iruditu zitzaidan,
amak semeari galdu eta agertzen denean garrasika ekiten dion bezala,
eta haiek besoetatik heldu zioten, gora jaso, eta
tximiniaren hormaren kontra jarri zuten,
eta polizia garaiak
zigarro bat piztu zuen
bere ahoan, eta gizonari eskaini zion, eta
orduan denek piztu zituzten zigarroak, eta
zigarroen punta gorri distiratsuek su egin zuten,
gauaren erdian munduaren jatorrira itzuliz
piztu ohi genituen su txiki haiek bezala.

On the Subway

The young man and I face each other.
His feet are huge, in black sneakers
laced with white in a complex pattern like a
set of intentional scars. We are stuck on
opposite sides of the car, a couple of
molecules stuck in a rod of energy
rapidly moving through darkness. He has
or my white eye imagines he has
the casual cold look of a mugger,
alert under lowered eyelids. He is wearing
red, like the inside of the body
exposed. I am wearing old fur, the
whole skin of an animal taken
and used. I look at his unknown face,
he looks at my grandmother coat, and I don't
know if I am in his power
— he could take my coat so easily, my
briefcase, my life —
or he is in my power, the way I am
living of his life, eating the steak
he may not be eating, as if I am taking
the food from his mouth. And he is black
and I am white, and without meaning or
trying to I must profit from our history
the way he absorbs the murderous beans of the
nation's heart, as black cotton
absorbs the heat of the sun and holds it. There is
no way to know how easy this
white skin makes my life, this
he could break so easily, the way I
think his own back is being broken, the
rod of his soul that a birth was dark and
fluid, rich as the heart of a seedling
ready to thrust up into any available light.

Metroan

Mutil gaztea eta ni, aurrez aurre.
Hanka handiak ditu, kirol-zapatila beltzekin,
modu bihurrian korapilaturik, berariazko
orbain multzo bat bezala. Elkarri buru emanez
gaude bagoian estututa, molekula pare bat
argi-lerro batean bezala, ziztu bizian
ilunpean barrena. Zera dauka,
edo nire begi zuriak irudikatu du zera daukala,
erasotzaile baten begirada ezaxolati hotza,
betazal txilotuen azpitik zelatan. Gorriz
jantzirik dago, gorputz irekiaren barrua
bezala. Nire jantzia larru higituzkoa da,
animalia ehizatu baten larru doitua.
Haren aurpegi ezezagunari begira nago,
berak nire amonaren beroki honi begiratzen dio, eta ez dakit
haren mende ote nagoen
—erraz ken diezadake berokia,
maletatxoa, bizia—
ala bera ote dagoen nire mende, haren
bizkar biziz, berak jan ezin duen
okela janez, janaria ahotik
kenduko banio bezala. Eta bera beltza da
eta ni zuria, eta nik nahi gabe edo hartarako
asmorik gabe, etekina atera behar gure historiari,
berak nazioaren bihotzaren distira hiltzailea
xurgatzen duen moduagatik, kotoi beltzak
eguzkiaren beroa jaso eta gordetzen duen bezala. Ez dago
modurik jakiteko zenbat errazten
didan larruazal zuri honek bizia, berak
hain erraz ken diezadakeen hauxe; berari
aitzitik bizkarra hautsi diote, arimaren
ardatza, jaiotzean beltza eta arina zena,
oparoa, nola baita ernetzeko zorian dagoen
kimuaren bihotza edozein argiren eraginez.

The Abandoned Newborn

When they found you, you were not breathing.
It was ten degrees below freezing, and you were
wrapped only in plastic. They lifted you
up out of the litter basket, as one
lifts a baby out of the crib after nap
and they unswaddled you from the Sloan's shopping bag.
As far as you were concerned it was all over,
You were feeling nothing, everything had stopped
some time ago,
and they bent over you and forced the short
knife-blade of breath back
down into your chest, over and
over, until you began to feel
the pain of the life again. They took you
from silence and darkness right back
through birth, the gasping, the bright lights, they
achieved their miracle: on the second
day of the new year they brought you
back to being a boy whose parents
left him in a garbage can,
and everyone in the Emergency Room
wept to see your very small body
moving again. I saw you on the news,
the discs of the electrocardiogram
blazing like medals on your body, your hair
thick and ruffed as the head of a weed, your
large intelligent forehead dully
glowing in the hospital TV light, your
mouth pushed out as if you are angry, and
something on your upper lip, a
dried glaze from your nose,

Jaioberri abandonatua

Aurkitu zintuztenean, ez zeneukan arnasarik.
Hamar gradu zero azpitik, eta zu plastikoz
soilik bilduta. Zakarrontzitik
jaso zintuzten, nola baita jasotzen sehaskatik
haurra lo-kuluska egin ondoren,
eta Sloan erosketa-poltsatik atera zintuzten.
Zure aldetik, zureak egina zuen,
ez zenuen ezertxo ere sentitzen, dena gelditua zen
lehentxeago,
eta, zugana makurturik, behartzen hasi ziren
berriro arnasaren aizto laburra
zure bularraren barruan, behin eta
berriz, harik eta biziaren mina
berriro sentitzen hasi zinen arte. Haiek isiltasunetik
eta iluntasuneteik atera zintuzten atzera, berriro
jaiotzera, hatsankatzera, argi distiratsuetara, eta
lortu egin zuten miraria: urte berriaren
bigarren egunean itzularazi zintuzten
gurasoek zakarrontzian abandonatutako
mutikoa izatera,
larrialdi-aretoan denek negar
egin zuten zure gorputz ñimiñoa
berriro mugitzen ikusita. Albisteetan ikusi zintudan,
elektrokardiogramaren diskoak
gorputzean distiraka zenituela, dominak
bailiran, zure ile lodi
banatuak belar txarraren burua zirudien,
zure bekoki zabal bizkorraren distira zurbila
ospitaleko telebistaren argitan, zure
aho kanporantz estutua, haserre bazeunde bezala,
eta zure goiko ezpainean zer edo zer,
sudurretiko izotz idortua,

and I thought how you are the most American baby,
child of all of us through your very
American parents and through the two young medics,
Lee Merklin and Frank Jennings,
who brought you around and gave you their names,
forced you to resume the hard
American task you had laid down so young,
and thought I see the broken glass on your path, the
shit, the statistics — you will be a man who
wraps his child in a plastic and leaves it in the trash — I
see the light too as you saw it
forced a second time in silver ice between your lids, I am
full of joy to see your new face among us,
Lee Frank Merklin Jennings I am
standing here in dumb American praise for your life.

eta pentsatu nuen zu zinela haurrik amerikarrena,
gu guztion umea guraso amerikar petoen bidez,
bi mediku gazte zirela medio,
Lee Merklin eta Frank Jennings,
haiek berriro gure artera ekarri eta beren izenak eman baitzizkizuten,
amerikar betebehar latzari
berriz ekitera behartu hain txikitandik,
eta zure bidean kristal hautsiak ikusten baditut ere,
eta simaurra nahiz estatistikak —bere umea plastikoan
bildu eta zaborretara botako duen gizona izango zara—
zuk ikusten duzun argi bera ikusten dut nik ere,
bigarren aldiz piztera behartua izan da zure betazalen
arteko izotz zilarreztatuan, pozez
zorutzen nago zure aurpegi berria gure artean ikusita,
Lee Frank Merklin Jennings, hemen
naukazu, zutik, zure bizitzaren alde otoitz amerikar isila eginez.

In the Cell

Sitting in the car at the end of summer, my feet in the dashboard, the children in the back laughing, my calf gleaming like a crescent moon, I notice the hairs are sparser on my legs, thinning out as I approach middle age— not like some youth whose vigorous hairs pulse out of his skin with power while he is taking a man's genitals off as slowly as possible, carefully, so as not to let him get away, to get all he knows out of him first— names, locations, human maps of human cities, in our common tongue and written with our usual alphabet so he can rule those maps, change the names of the streets and line the people along them to turn the small cells of their faces up to him, the sun on him like gilding. This is what I cannot understand, the innocence of his own body, its goodness and health, the hairs like sweet molasses pouring from the follicles of his forearm and cooling in great looping curls above the sex of the man he is undoing as he himself was made.

Gelatxoan

Autoan eserita uda amaieran,
hankak aurreko panelera igota, umeak atzeko aldean
barrez, nire bernei ilgoraren antzeko distira dariela,
ohartu naiz ileak bakanago ditudala zangoetan,
mehetuz doaz adin ertainera hurbildu ahala
—ez gazte zenbaiten ile gogorak bezala,
larruazaletik indartsu irteten, bera gizonaren genitalei
ahalik eta emekien tiraka
ari den bitartean, kontu handiz,
ihes egiten ez uzteko
dakien guztia atera arte—
izenak, kokapenak, giza hirietako
giza mapak, gu guztion hizkuntzan eta
ohiko alfabetoan idatziak, berak mapa
horiek zuzendu ahal izateko, kaleen izenak aldatu eta
jendea lerrokatu ahal izateko aurpegietako
gelatxoak berarengana begira jarrita,
bera eguzkipean urrez blai dagoen bitartean.
Horixe da ulertu ezin dudana,
haren gorputzaren xalotasuna, haren
izaera onbera eta osasuntsua, bilo
ezti-gozoa folikuluetatik ernetzen haren besaurrean
eta kizkur handitan kiribildurik sexu
gainaldean; gizon horrek bere burua
egin ahala gainerakoa desegiten du.

The Twin

(for Lazarus Colloredo, 17th Century)

He is a large man, with thick hair
and a thick moustache. He holds aside his
cloak, he holds his vest open,
his shirt open. His twin grows
from his chest. Canted over backward toward us
it hangs from him, its arms —jointed like
chicken wings— springing from its ribs and
held with slings, its hands cocked,
the head dangling. Its eyes are closed
and never did open. Its mouth is open
and never did close, and though along the jaws
whiskers appeared, from the mouth there never
came a sound. The luxuriant hair
hangs down from the scalp, nearly touching its
one leg, plump and white, that
dangles on the man's thigh. At birth
they were given one name, but when the man grew up,
his sleeping twin suspended from him with that
slight grin of ecstasy on its
face, floating before him, its skin
his skin, its genitals buried in his body,
he had it baptized, naming the heart
nest to his heart. He has placed a lace collar
around the throat swaying in the air,
the half-body that at night curls like a
cat in the curve of his body.
He looks at us, his gaze direct
and without expectation, heavy-lidded eyes
full of weariness, he looks at us
across his brother, the one he named
John the Baptist, who goes before him
into the wilderness.

Bikia

(Lazaro Colloredori, 17. mendea)

Gizon handia da, ile sarrikoa
eta bibote lodikoa. Longainekoari alde batean
eusten dio, txalekoa zabalik,
kamiseta zabalik. Bikia bularretik
ageri zaio. Gugana okertuta bizkarra emanez dago
harengandik zintzilik, haren besoak —oilasko
hegoak bezala bilduta— saihets-hezurretatik
irteten zaizkio, lokan, eskuak aldeetara
eta burua zintzilik. Begiak itxita dauzka,
inoiz ireki gabeak. Ahoa zabalik dauka,
inoiz itxi gabea, eta masail-hezurretan zehar bizarra
ageri bada ere, haren ahotik oraindik ez da inoiz
soinutik irten. Ile ugaria
burutik beherantz datorkio, ia hanka bat ukitzeraino;
hanka hori lodia eta zuri-zuria du, eta
gizonaren izterrean kulunka dauka. Jaiotzean
izen bakarra jarri zieten biei, baina, gizona hazi zenean,
biki lotia harengandik zintzilika jarri zen, aurpegian
estasizko irribarre hori ageri zuela,
haren aurrealdean eskegita, larruazal bera,
barrabilak haren gorputzean gordeak,
eta bataiatu egin zuen, bere bihotzaren ondoan
zeukan bihotzari izena emanez. Parpaila jarri
zion lepo inguruan, airean kulunka;
gauetz katu baten pare gorputzaren txokoan
biltzen zaio gorputz-erdi hori.
Guri begira dago, begirada zuzenez,
ezeren itxaropenik gabe, akiduraz beteriko
betazalen azpitik, bere anaiaren zehar
begiratzen digu, Juan Bautista
deitu zion, eta haren aurrealdean doa
basakerian barrena.

The Food-Thief

(Uganda, drought)

They drive him along the road in the steady
conscious way they drove their cattle
when they had cattle, when they had homes and
living children. They drive him with pliant
peeled sticks, snapped from trees
whose bark cannot be eaten —snapped,
not cut, no one has a knife, and the trees that can be
eaten have been eaten leaf and trunk and the
long roots pulled from the ground and eaten.
They drive him and beat him, a loose circle of
thin men with sapling sticks,
driving him along slowly, slowly
beating him to death. He turns to them
with all the eloquence of the body, the
wrist turned out and the vein up his forearm
running like a root just under the surface, the
wounds on his head ripe and wet as a
loam furrow cut back and cut back at
plough-time to farrow a trench for the seed, his
eye pleading, the iris black and
gleaming as his skin, the white a dark
occluded white like cloud-cover on the
morning of a day of heavy rain.
His lips are open to his brothers as the body of a
woman might be open, as the earth itself was
split and folded back and wet and
seedy to them once, the lines on his lips
fine as a thousand tributaries of a
root-hair, a river, he is asking them for life
with his whole body, and they are driving his body
all the way down the road because
they know the life he is asking for—
it is their life.

Janari-lapurra

(Uganda, lehortea)

Bidean zehar gidatzen dute, zuhurki, nola
baitzuten beren azienda gidatzen
azienda zuten garaian, etxeak zituzten garaian eta
umeak bizirik. Makila zuritu malguekin
gidatzen dute; jan ezin diren
zuhaitzetatik erauzi dituzte —erauzi,
ez moztu, inork ez baitu aiztorik, eta jan
zitezkeen zuhaitzak janak baitituzte, hosto, enbor
eta sustrai luze eta guzti, lurretik erauzi eta jan.
Aurrean daramate eta jo egiten dute zirkulu irekia
osatuz, gizon iharrak dira kimuzko makilekin,
hura poliki-poliki gidatuz, joka,
hiltzeko. Haiengana itzuli da
gorputzaren elokuentzia osoarekin,
eskumuturra okerturik eta besoan gora doan zaina
lur azpiko sustraiaren antzera ageri zaiola,
buruko zauriak, umoturik eta heze,
nola erreten bizi-bizia ebakitzen baita behin eta berriz
ereiteko aroan haziarentzat egiten den erretena bezala,
begia erreguka, iris beltz eta
distiratsuz, larruazala bezalaxe, begiko
zuriunea, beltzak itoa, egunsentian hodei
multzoak curia gogor ari duenean bezala.
Ezpainak zabalik dauzka bere anaienganatz, emakumearen
gorputza zabal daitekeen bezala, lurra bera erdibitu
eta atzera itsasi balitz bezala, lehen hezea
eta emankorra zen lurra, ezpainen zimurrak
meheak dira, mila ibaiadar sustrai mehe gisako,
erreka bat, bizia eskatzen ari zaie
bere gorputz osoaz, eta haiek haren gorputza daramate
bidean behera, hondoraino, ezen
badakite zer bizi eskatzen dien,
beren bizia, alegia.

The Girl

They chased her and her friend through the woods
and caught them in a small clearing, broken
random bracken, a couple of old mattresses,
the dry ochre of foam rubber,
as if the place had been prepared.

The thin one with black hair
started raping her best friend,
and the blond one stood above her,
thrust his thumbs back inside her jaws, she was 12,
stuck his penis in her mouth and throat
faster and faster and faster.

Then the black-haired one stood up;
they lay like pulled-up roots at his feet,
two naked 12-year-old girls, he said
Now you are going to know what it's like
to be shot 5 times and slaughtered like a pig,
and they switched mattresses,
the blond was raping and stabbing her best friend,
and the black-haired one sticking inside her
in one place and then another,
the point of his gun pressed deep into her waist,
she felt a little click in her spine and a
sting like 7-Up in her head and then he
pulled the tree-branch across her throat
and everything went dark,
the gym went dark, and her mother's kitchen,
even the globes of light on the rounded
lips of her mother's nesting bowls went dark.

When she woke up she was lying on the cold
iron-smelling earth, she was under the mattress,
pulled up over her like a
blanket at night,
she saw the body of her best friend

Neskatoa

Beraren eta lagunaren atzetik ehizan ibili ziren basoan zehar
eta soilgune txiki batean harrapatu zituzten, garo
hautsiak han-hemenka, koltxoi zahar pareta,
goma-aparraren idor nabarra,
lekua prest utzi balute bezala.
Ile beltzeko argala
neskatoaren lagun mina bortxatzen hasi zen,
eta ilehoria beraren gainean jarri zen,
erpuuez masailezurak zanpatuz, 12 urte besterik ez zituen,
zakila ahoan sartu zion eztarriraino,
bizkorrago, bizkorrago, bizkorrago.
Ondoren, ile beltzekoa zutik jarri zen;
lurrean etzanda zeuden haren oinen parean, sustrai erauziak bezala,
12 urteko bi neskato biluzik, eta esan zuen
Orain ikusiko dun zer den 5 tiro jasotzea
eta txerri bat bezala hiltzea,
eta koltxoiz aldatu ziren,
ilehoriak haren lagunik onena bortxatu eta sastakatu zuen
eta ile beltzekoak zakila sartu zion
zulo batetik eta bestetik,
pistolaren muturrarekin sabela sakon zanpatzen zion bitartean,
klik txiki bat nabaritu zuen bizkarrezurrean
7-Up bezalako ziztada buruan, eta mutilak
zuhaitz-adar batez estutu zion eztarria,
eta dena ilundu egin zen,
gimnasioa ilundu, eta amaren sukaldea ere ilundu,
eta amaren habia-ontzietako tolesduretako
argi-globo biribilak ere itzali egin ziren.

Esnatu zenean, etzanda zegoen burdin usaineko
lur hotzean, koltxoiaren azpian,
gainera botata baitzeukan
gauean gaineratutako burusi bat bezala,
eta bere lagun onenaren gorputza ikusi zuen

and she began to run,
she came to the edge of the woods and she stepped
out from the trees, like a wound debriding,
she walked across the fields to the tracks
and said to the railway brakeman Please, sir. Please, sir.

At the trial she had to say everything —
her big sister taught her the words —
she had to sit in the room with them and
point to them. Now she goes to parties
but does not smoke, she is a cheerleader,
she throws her body up in the air
and kicks her legs and comes home and does the dishes
and her homework, she has to work hard in math,
the night over the roof of her bed
filled with white planets. Every night she
prays for the soul of her best friend and
then thanks God for her life. She knows
what all of us want never to know
and she does a cartwheel, the splits, she shakes
the shredded pom-poms in her fists.

eta lasterka abiatu zen,
basoaren ertzeraino heldu zen eta zuhaitzen artetik
irten zen, estalkia askatzen zaion zauria bezala,
zelai batzuk zeharkatu zituen burdinbidera iritsi arte
eta burdinbideetako aldagailuak zaintzen zituen gizonari
esan zion Mesedez, jauna. Mesedez, jauna.

Epaiketan, dena esan behar izan zuen —
ahizpa zaharrenak erakutsi zizkion hitzak —
haiekin eseri behar izan zuen aretoan eta
hatzaz seinalatu. Orain, festetara joaten da
baina ez du erretzen, animatzailea da,
gorputza airean jasotzen du
eta zangoak gora igotzen ditu eta etxera itzultzen da
ontziak garbitzera eta eskolako lanak egitera, gogor saiatu behar du matematikan,
bere gelako sabaia gauez
planeta zuriz estalirik dago. Gauero otoitz
egiten du bere lagunik onenaren arimaren alde
eta eskerrak ematen dizkio Jainkoari biziagatik.
Gu guztiok ezagutu nahi ez dugun zerbait ezagutzen du,
eta txilinbuelta egiten du, eta hankak zabal-zabal jartzen ditu,
eta eskumuturretako borlak astintzen ditu.

I Go Back to May 1937

I see them standing at the formal gates of their colleges
I see my father strolling out
under the ochre sandstone arch, the
red tiles glinting like bent
plates of blood behind his head, I
see my mother with a few light books at her hip
standing at the pillar made of tiny bricks,
the wrought-iron gate still open behind her, its
sword-tips aglow in the May air,
they are about to graduate, they are about to get married,
they are kids, they are dumb, all they know is they are
innocent, they would never hurt anybody.
I want to go up to them and say Stop,
don't do it, she's the wrong woman,
he's the wrong man, you are going to do things
you cannot imagine you would ever do,
you are going to do bad things to children,
you are going to suffer in ways you have not heard of,
you are going to want to die. I want to go
up to them there in the late May sunlight and say it,
her hungry pretty face turning to me,
her pitiful beautiful untouched body,
his arrogant handsome face turning to me,
his pitiful beautiful untouched body,
but I don't do it. I want to live. I
take them up like the male and female
paper dolls and bang them together
at the hips, like chips of flint, as if to
strike sparks from them. I say
Do what you are going to do, and I will tell about it.

1937ko maiatzera itzuli naiz

Hantxe ikusten ditut, beren unibertsitateko ate nagusian,
aita ikusten dut irteten
hareharri nabarrezko arkuaren azpitik,
harlauzatxo gorriak dirdaitsu, buruaren
atzean tolesturiko odol-xaflak balira bezala,
ama ere ikusten dut, gerrian liburu arin batzuk dituela,
adreilu txikiz egindako zutabearen ondoan zutik,
burdina forjatuzko atea oraindik zabalik dago haren atzean,
gezi muturrak maiatzeko airean dirdirka,
gradua amaitzear daude biak, ezkontzeko gutxi falta zaie,
umeak dira, xaloak dira, errugabeak direla besterik
ez dakite, inoiz ez liokete inori kalterik egingo.
Haiengana joan nahi nuke eta esan Geldi hori!
Ez egin hori! Ez zaizu komeni emakume hori,
ez zaizu komeni gizon hori, inoiz imajinatuko
ez zenituzketen gauzak egingo dituzue,
umeei gauza txarrak egingo dizkiezue,
inoiz entzun ere egin ez duzuen moduan sufrituko duzue,
hil egin nahi izango duzue. Haienganaino heldu
nahi dut maiatzaren amaierako eguzki-errainupean hori esatera,
amaren aurpegi polit gosetia nigana begira,
haren gorputz ederra, ukigabea tamalez,
aitaren aurpegi bikain harroa niri begira,
haren gorputz ederra, ukigabea tamalez,
baina ez dut halakorik egin. Bizi egin nahi dut.
Paperezko panpina ar eta eme balira bezala
altxatu eta batu egiten ditut gerritik,
silex zatiak bezala, haiengandik
txinpartak atera nahian bezala. Eta diotset
Egizue egitera zoaztena, eta ni mintzatuko naiz horri buruz.

San Francisco

When we'd go to San Francisco, my father
seemed to seek out the steepest streets,
he would sit behind the wheel and smile
to himself, his face red as a lobster
at Fisherman's Wharf after they drop it
green and waving into boiling water.
His eyes would snap as if popping from a pod,
his black hair would smoke in that salty
air, he would tilt the nose of the car
up and press on the gas. We'd begin
the ascent, nearly vertical
tires about to lose their grip on those
slanted cobbles, he'd inch us, like an
engineering experiment,
we'd barely rise, till we hung in space from
nothing, like driving up an elevator shaft,
the black pull of the earth's weight
sucking us back, he'd slow down more and
more, we'd barely rise past buildings
pressed to the side of the precipice
like trees up the face of a cliff. I do not
remember my mother, but she was there,
this may have been for her. As we neared the
top, he went slower and slower, and then
shifted into first. I think he was smiling,
and in that silence between gears
I would break, weeping and peeing, the fluids of my
body bursting out like people from the
windows of a burning high rise.
We'd hit the peak, tilt level,
but what was life when the man who had made my
body liked to dangle it over empty space and
tease me with death. He sat there sparkling, a
refuse dump, the wheel loose
in his hands, the reins of my life held slack.

San Francisco

San Franciscora joaten ginenean, aita
kale pikoenen bila zebilela zirudien,
bolantearen atzean eserita, irribarrez
berekiko, aurpegia gorri, Fisherman's
Wharf-eko otarrain baten pare, ur irakinetan
artean berde eta mugituz sartu ondoren.
Haren begiak kliska batez zabaltzen ziren, leka lehertzean bezala,
haren ile beltzari kea zerion kresal-aire
hartan, autoaren muturra gora begira jarri
eta azeleragailua sakatzen zuen. Gorantz
abiatzen ginen, ia tente,
gurpilak galtzada-harrizko malkarretik
desitsasteko zorian, gu kulunkatuz,
ingenieritzako esperimantu batean bezala,
ia altxaturik, ezerezean zintzilik geratzeko
zorian, igogailu baten ardatzean gora gidatuz
bagindoaz bezala, lurraren zama beltzak
atzerantz erakarriak, mantsoagotu egiten zuen
gero eta gehiago, amildegia ertzean estu
zeuden eraikinei ia gaina harturik —labar
gaineko zuhaitz-ilarak ziruditen—. Ez dut
gogoan ama, baina han zen hura ere,
harengatik egingo zuen noski. Gailurretik gertu,
gero eta polikiago gidatzen zuen, eta
lehen martxa sartu. Uste dut irribarrez zihoala,
eta martxa batetik bestera pasatzeko isilunean
negarrari eman nion eta pixa egin nuen, nire gorputzeko isuriak
kanporatuz, nola jausten baita jendea
sutan dagoen eraikin garai batetik.
Gailurra jotzean, orekan jartzen ginen,
baina zer bizimodu zen hura, nire gorputza egin zuen
gizonak hutsean zintzilik jartzea gustuko baitzuen
heriotza-txantxa eginez. Izerdia zeriola esertzen zen
zabor-zaku hura, bolantea eskuetan solte,
nire bizitzaren hedeak askatuta.

We'd climb out, my knees shaking and I
stank, to look at the world spread out at our
feet as if we had power over our lives,
as if my father had control of himself
or I of my fate —
far below us,
blue and dazzling, the merciless cold
beauty of the Bay, my whole saved life ahead of me.

Autotik jaistean, belaunak dardarka, kiratsa
zeridan, mundua gure oinetan nola hedatzen zen ikusiz
gure biziak mendean bagenezka bezala,
gure aitak bere burua edo nire patua
mendean baleuka bezala;
gure azpian, urrunean,
urdin eta dirdaitsu, Badiaren edertasun
hotz gupidagabeak bultza egiten zion aurrez
aurre nire bizi salbatu osoari.

Looking at my father

I do not think I am deceived about him,
I know about the drinking, I know he's a tease,
obsessive, rigid, selfish, sentimental,
but I could look at my father all day
and not get enough: the large creased
ball of his forehead, slightly aglitter like the
sheen on a well-oiled baseball glove;
his eyebrows, the hairs two inches long,
black and silver, reaching out in
continual hope and curtailment; and most of
all I could look forever at his eyes,
the way they bulge out as if eager to see and
yet are glazed as if blind, the withes
hard and stained as boiled eggs
boiled in sulphur water, the irises
muddy as the crust on a live volcano, the
pupils glittering pure black,
magician black. Then there is his nose
rounded and pocked and comfy as the bulb of a
horn a clown would toot, and his lips
solid and springy. I even like to
look in his mouth, stained brown with
cigars and bourbon, my eyes sliding down the
long amber roots of his teeth,
right in there where Mother hated, and
up the scorched satin of the sides and
vault, even the nobs on the back of his
tongue. I know he is not perfect but my
body thinks his body is perfect, the
fine stretched coarse pink
skin, the bid size of him, the
sour-ball mass, darkness, hair,
sex, legs even longer than mine,

Neure aitari begira

Ez dut uste engainaturik nagoenik aitari dagokionez,
badakit edan egiten duela, badakit gogaikarria
dela, tematia, zurruna, berekoia, sentimentala,
baina hari begira egon naiteke egun osoan
aspertu gabe: haren bekoki zabal zimur
biribila, baseballeko esku-larru koipeztatuak
baino distira pixka bat gehiagokoa;
bekainak, buruko ile —bi hatz luzeran—
zuri-beltzak gorantza, etengabeko
itxaropenez eta mozketaz; eta batez ere
haren begiei begiratuko nieke betierean,
irtetear daude, ikusteko irrikaz,
uher samar, itsu batenak bezala, zuriuneak
gogorturik eta orbandurik, sufre-uretan
egositako arrautzen pare, irisak
lohiturik, sumendi bizi baten azala bezala,
betseinei distira beltza darie,
aztien distira beltza. Eta horra sudurra,
biribila, zanpatua, gozoa, pailazo batek jotzen duen
turutaren erraboilaren antzekoa, eta ezpainak
sendo bezain malguak. Atsegin dut
haren ahoari ere begiratzea, narras-arre dauka
zigarroen eta bourbonaren kariaz, nire begirada irristan doa
haren hortzen ager-une anbar-kolorekoan zehar,
amak erdeinatzen zituen baina, eta
aho-barrunbeko aldean eta sabaiaren satin
errear nahiz mingain azpiko lotuneetan
zehar. Badakit bera ez dela perfektua, baina
nire gorputzak uste du harena perfektua dela,
haren larruzal mehe tenkatu lakarra,
haren luze-zabalera handia, haren masa
karamelu-bola, haren belztasuna, ilea,
sexua, hankak nireak baino luzeagoak are,

lovely feet. What I know I know, what my
body knows it knows, it likes to
slip the leash of my mind, and go and
look at him, like an animal
looking at water, then going to it and
drinking until it has had its fill and can
lie down and sleep.

oin politik. Badakit zer dakidan, nire
gorputzak badaki zer dakien, eta atsegin du
nire buruaren hedeei irristatzen uztea
eta joan eta hari begira jartzea, animaliak
urari bezala, eta joan hara eta
edan bete arte eta etzan
azkenean, eta lo hartu.

Resumen

Un escritor definió a Sharon Olds (San Francisco 1942) como «la poeta que trae el fuego en sus manos», y este artículo pretende aclarar el significado de dicha afirmación. Sharon Olds ha elaborado su obra en torno a la dicción directa de una autobiografía nada fácil. Hija de una familia en la que la violencia era algo cotidiano, ha sido capaz de expresar por medio de su obra los silencios angustiosos que se ocultan bajo una capa de distinción y mediocridad. *La celda del oro* deja vislumbrar los tres ejes fundamentales de su poesía: el retorno a una infancia infeliz y el peso de la familia en la personalidad de la poeta; su compromiso ético y político, y la presencia de una sexualidad que expresa el deseo desde una enriquecedora expresión poética.

Résumé

Un écrivain définit Sharon Olds (San Francisco, 1942), comme « la poète qui a du feu dans les mains ». Dans cet article nous tentons d'éclaircir ce que signifie cette phrase dans la poésie de l'auteur. Sharon Olds a constitué son œuvre autour d'une autobiographie difficile. Née dans une famille dans laquelle la violence était le pain quotidien, elle a su exprimer dans son travail les silences lourds qui se cachent derrière l'image renvoyée par la famille. *La cellule d'or* que nous avons choisi de traduire vers le basque permet d'appréhender les trois axes fondamentaux de la poésie de Sharon Olds : le retour à une enfance malheureuse et le poids familial dans la personnalité de la poète ; son engagement éthique et politique ; l'expression transparente d'une sexualité qui enrichit sa poésie.

Abstract

One writer defined the poetry of Sharon Olds (San Francisco, 1942) as “pure fire in the hands.” This article tries to articulate exactly what that means. Sharon Olds' work is built on the foundation of her difficult personal history. Through her work, this child of a violent family expresses the anguished silence hidden below a surface of normalcy. *The Gold Cell* illuminates the three core attributes of her poetry: the return to an unhappy childhood and the power of the family in the poet's identity, her ethical and political commitment, and a transparent expression of sexuality that enriches her poetry.